

# hiruka

201. zenbakia  
2023ko abendua

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# Euskarak koloreztatu zaitzala

# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## EUSKARA, JALGI HADI DIGITALERA

**GAITU**

**24 ORDU EUSKARAREN ALDE**

**GEHITU KIROLA**

**SU TA GAR**

**TRIKIKANTU GOSARIA + TRIKIMERIENDA**

**ALBE GALA**

**LITERATURA SOLASALDIA**

**GO!AZEN 10.0**

Ekitaldi guztiak, hemen:



**BAT EGIN  
OSPATZEKO  
GETXOKO  
EKITALDIEKIN!**



**Getxo**  
*bizi ezazu*



# Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 2022ko Euskaraldiko datuak
- 8 Berbots, Erandioko euskara elkarte
- 9 Bizarra Lepoan, Getxoko euskara elkarte
- 10 Berbetan: Iñigo Urrutia, euskararen oldarrialdiaren inguruan
- 14 Usategi
- 16 Euskararen agenda
- 18 Gaitu, makinei euskara irakasteko kanpain
- 20 Ibon Arregi, IgeriBizi ekimenaz
- 22 Gehitu Kirola, euskara kirolera zabaltzen
- 24 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 26 Faceguk: euskaraz aritzen zara?
- 27 Zozketak



# hiruka

**HIRUKA kooperatiba elkarte**

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Posta-kutxa:** 171

**Telefonoa:** 944 911 337

**Publizitatea:** Maria Gorostiola

**Erredakzioa:** Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Aroa Sotelo Velasco, Iker Torre Navarro eta Ander Zarraga

**Diseinua:** Artefakto

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:** Paul Bilbao, Iratxe Marta eta Joseba Santxo

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

## Erakunde laguntzaileak



# Bizkaia

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

## Aurrera egin dezagun

**PAUL BILBAO SARRIA** Euskaltzalea



**Z**alantzarik gabe argazki indartsu batekin iritsi gara 2023ko Euskararen Nazioarteko Eguna, azaroaren 4an Bilbon botere judizialaren oldarraldiaren aurrean erakutsitako irimotasunarena hain zuzen. 70.000 pertsona baino gehiagoren haserrea, desadostasuna, bai eta pertsona horien guztien euskaraz bizi nahia zein determinazioa ere. Adostasun soziopolitiko ikaragarria islatu zuen Bilboko argazkiak. 2023ko Euskararen Nazioarteko Eguna iritsi gara azken hamarkadatan ezagutu izan ez dugun oldarraldiarekin. Horrela, gure herria berezko hizkuntzan bizi ahal izateko tresnak kamustez gain, botere judiziala gure eskubideen urraketak betikotzeko politikak ahalbidetzen ari da. Egoera zinez larria, botere judiziala bera hizkuntza-politika are delako egiten.

Azaroaren 4an hesia eraiki genuen, baina zubiak eraikitzeko garaia da. Horretarako, nahitaezkoa da hizkuntza-politika eragingarriak ahalbidetuko dituen itun politiko-soziala. Milaka herritarrok eztarria urratu genuen hori gerta dadin, eskaera horri kasu egin diezaiotela, kasu egin diezagutela alderdi politikoek zein botere publikoek. Izan dadila Euskararen Nazioarteko Eguna jauzia egiteko inflexio-puntua. Testuinguru makurrei aurre egiten ari gaitzaizkie; aurrera egin dezagun!

## Aldarri tinko eta bateratua

**IRATXE MARTA** AEK-ko irakaslea



**23.** KORRIKAK herri-aldarri alai eta tinkoa izan nahi du: HARRO HERRI. 23.KORRIKAN, Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu nahi dugu, edo, zehazki, Baxoa eta Brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak.

Euskara da haien aldarria, KORRIKArene bezalaxe; beren ikasketen une erabakigarri batean, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egiten dute, Frantziako Gobernuaren aginduen gainetik eta beren notetan kalteak onarturik. Azterketak Euskaraz kolektiboa gazteek osatua da, guraso zein irakasleak bidelagun dituztelarik gatazkan. Euskararen ekintzaile dira; haiek dira protagonista, eta, haien bidez, 35 urtean hainbat belaunaldiren lana aitortzeko aukera dugu.

Aitortza hau haien egoera ezagutzera emateko da: Euskal Herrian, eta hemendik kanpo jakin dezatela gazte horiek ezin dutela ikasketen zati garrantzitsu hori gure hizkuntzan burutu. Gainerako gazteentzat eredugarri izan daiteke ikustea egoera okerrenetan ere hainbat ikasle ahalegina egiten dutela euskara hautatzeko.

23. KORRIKA honetan HARRO, BAINA EZ KONFORME aldarrikatu nahi dugu; gure ahaleginarekin batera, instituzioek dutelako ardura garrantzitsua.

## Puntua eta kontrapuntua **Euskararen aurkako oldarraldi judizialak**

# Oldarraldia



*Azken sasoi honetan  
mila oldarraldi,  
hilero izaten da  
epai bat ala bi.  
Gure errekurtoa:  
jarraitu kantari,  
ta arreta jarrtzea  
maite dugunari.  
Erasoen aurrean  
ekin euskarari!*

**DANIEL  
DE MIGUEL  
AVECILLA**  
Getxo

*Epaille gehiegitxok  
mailu hori makil  
moduan gure aurka  
sarritan darabil.  
Eta, Dani, gu ezin  
gara egon trankil;  
erakusten baitigu,  
aspaldian nabil,  
faxismoa gurean  
ez genuela hil.*

**BEÑAT  
VIDAL  
GURRUTXAGA**  
Getxo



**Marian Gaztainaga** Etzandarri euskal mendi taldeko sortzailea

# «Gazteak euskaraz mintzo dira eta konturatzen dira ez dela soilik mendiko kontua»

**2015ean sortu zuen Marian Gaztainagak bere senar Iosu Alberdigaz batera Etzandarri euskal mendi taldea, euskara eta kirola bat egiteko asmoz.**

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIA: IKER TORRE NAVARRO ▶

**D**uela zortzi urte, Marian Gaztainagak eta bere senarrak pentsatu zuten momentua zela euren alabak kirolen batean hasteko, eta, Lemoizko euskararen erabilera urriari erreparatuz, Etzandarri mendi taldea sortzea okurriratu zitzaion. Hala, kirola eta euskara elkartzuz, arazo biri irtenbide bakarragaz eman zioten konponbide. «Taldea sortzeko beste mendi talde batzuetako webguneen adibideak eta erreferentziak genituen. Izan ere, badagoz horrelako ekimenak, baina ez euskara hutsean», azaldu du Gaztainagak.

Taldearen eraketa modu «naturalean» eman zen: «Hasieran, gertuko gurasoak eta gure alaben lagunak etortzen ziren. Egun, eskualdeko beste herrietako mendizaleak ere

animatzen dira». Hala, 15 pertsona inguru joan ohi dira hilean behin antolatzen dituzten mendi-irteeretara.

Lemoizko egoera soziolinguistikoari dagokionez, uste du herritar nahikok dakitela euskaraz, baina gero horietako gutxi erabiltzen dutela euren egunerokoan: «Gazteek derrigortuta erabiltzen dute arlo akademikoan, baina, gero, ikastetxeetatik kanpo, ez da arrunta euskara entzutea hemen. Gurasoek ere jakin arren ez dute euskaraz egiten haien artean».

Halaber, Gaztainagak aitortzen du taldea sortzerakoan pertsona batzuek zalantzan jarri zutela euskara jakitearen baldintza. «Baina guk argi genuen zer nahi genuen eta, azkenean, nik uste dut jendeak ulertu duela. Baina, zoritxarrez, badirudi batzuentzako zerbait ez zegoela ondo euskara hutsezko mendi talde bat sortzean», deitoratu du.

Halere, argi du egiten dituzten irteerek bultzada ematen diotela hizkuntzari. «Gazteak mendian euskaraz mintzo dira. Kostatu arren, ahalegina egiten dute eta konturatzen dira ez dela soilik mendiko kontua. Euren bizimoduan aldaketa bat gertatzen da euskaraz bizitzean». ◀

**Euskaraldia** Datuen balorazioa

# Zenbait hizkuntza ohitura aldatzeko eraginkorra da

**Ikerketako emaitzek diotenez, 2022ko Euskaraldian parte hartu zuten gizon-emakumeen bi herenek hizkuntza ohituraren bat edo beste aldatu dutela aitortu dute.**

**I**azkoa hirugarren edizioa izan zen, eta Euskal Herri osoko 158.440 lagunek eman zuten ariketan izena, aurrekoan baino % 11,1 gutxiago. Hala ere, azkenengo Euskaraldiak iraun zuen hamabostaldian, euskararen erabilera-datuak altuagoak izan ziren, eta joan den urrian aurkeztutako ikerketak ondorioztatu duenez, Euskaraldiaren ondoren ere datuak ariketaren aurretik baino altuagoak mantentzen dira; hau da, orain euskara gehiago entzuten da kalean.

Goiatz Urkijo Euskaraldiko koordinatzailearen esanetan, «ariketa gizartean normalizatu, finkatu eta egonkortu zela sentitzen genuen, eta hala baieztatu digu ikerketak». Izan ere, daborduko Euskaraldia ezaguna da gizartean, rolak hizkuntza joerakaz lotzen dira eta ariguneen funtzionamendua ondo ulertu da, oro har. Horrek dakar, antolatzaileen arabera, besteak beste, parte-hartzaileengan Euskaraldiak duen eragina areagotzea urtetik urtera: 2022an ariketan parte hartu zutenen bi herenek, intentsitate ezberdinetan bada ere, hizkuntza ohiturak aldatu dituzte. Ildo horretan, Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak azpimarratu du Euskaraldia eraginkorra dela, eta hala erakusten dutela datuek. «Euskaraldia, beraz, tresna egokia da euskararen erabilera sustatzeko».

**ERABILERA, INGURUARI LOTUTA.** Norbana-koetan zein entitateetan –ariguneen bitartez– Euskaraldiak izan duen eragina aztertu du Siadecok. Urrian aurkeztutako emaitzen arabera, parte hartzaileen bi herenek, intentsitate ezberdinetan bada ere, hizkuntza-ohiturak aldatu dituzte. Hala ere, eraginak inguruagaz zerikusia duela zehaztu dute arduradunek: «Izan ere, ia egoera guztietan, ingurua zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta gehiago egiten zen euskaraz Euskaraldia-



Euskaraldiaren azken edizioaren nondik norako ikerketa egin du Siadecok. EUSKARALDIA

**«Ariketa gizartean normalizatu, finkatu eta egonkortu zela sentitzen genuen, eta hala baieztatu digu ikerketak»**

**GOIATZ URKIJIO**  
EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA

**«Ikerketaren ondorioek erakutsi digute Euskaraldia tresna egokia dela euskararen erabilera sustatzeko»**

**MIREN DOBARAN**  
EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA  
ETA HITZKUNTZA POLITIKAKO  
SAILBURUORDEA

ren aurretik, eta gehiago egin da ondorenean ere; inguru erdaldunagoetan, ordea, Euskaraldiaren eragina gehiago nabaritu da, aldatzea handiagoa izan da».

Ariketaren eraginaren erakusle gisa, el-karrizketa elebidunak izaterakoan parte hartzaileek egin duten aurrerapausoa nabarmendu dute: «% 44,7tik %76,5era igo da bi hizkuntzetan ematen diren elkarrizketetan euskarari eusten diotenen portzentajea». Beste aldera, ikerketan parte hartu dutenentzat zailena izan da orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo hizkuntza bitan izatea. «Azken honetan, baina, errazagoa egin zaie jokabide hori hartzea Euskaraldiaren ondoren».

Entitateetan ariketak izan duen eragina ere aztertu du ikerketak; eta alor horretan ere datu esanguratsuak batu ditu azterlanak. Entitateen kasuan, ariketa amaitu eta ia bi hilabetera ariketa aurrekoak baino altuagoak dira erabilera datuak; parte hartutako entitateen ia heren batek (% 31,3) lortu du hizkuntza-ohiturak aldatzea. Entitateen % 10ak erantzun du lortu duela euskara izatea entitateko hizkuntza nagusia, eta % 21,3k esan du orduetik euskara gehiago erabiltzen duela. ◀

# Euskaraz amets egin, ikasi, idatzi, lan egin, maitemindu, jolastu, gozatu, sentitu... **zu zeu izan Kutxabanken ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.  
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.



Abenduak 3.  
**Euskararen Nazioarteko Eguna**

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:  
[www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus)

## Berbots Erandioko euskaltzaleen elkarte

# «Berbotsek beti izan du herri-izaera, eta helburuetako bat da auzoak elkartzea»

ANDER ZARRAGA ▶

**B**erbotsek 30 urte daramatza Erandio euskalduntzen, 1993an sortu zutenetik. Hasieratik, elkarteak auzoak batzeko helburua ere izan du, eta horri jarraituz, hainbat jarduera eta kanpaina egin dituzte udalerriko auzoetan euskara zabaltzeko eta euskaltzaleentzako arnasmuneak sortzeko. Mikel Zarate elkarteko kideak dio etorkizunera begira hainbat asmo dituztela, zeregin horretan jarraitu eta euskaltzale gehiago erakartzeko.

**Zeintzuk dira Berbotsek gaur egun dituen erronka eta helburu nagusiak?** Gure helburua da Erandion euskaltzaleetasuna bultzatzea, bertso-saioak, Kanpomartxo edo Berbalagun bezalako ekimenak antolatuz euskaltzaleak elkartzeko. Horien bitartez euskara erabiltzeko guneak sortzen dira, herrian euskararen erabilera bermatzen dutenak. Emaizak apalak izan arren, gutxika-gutxika eta modu errealistan egindako aurrerapauso bakoitza lorpen bat da.

**Zenbat kide zaudete Berbotsean?** Aspaldiko jendeak jarraitzen du, eta jende berria ere batu zaigu, tartean, atzerritarren bat. Gaur egun, 60 bazkidetik gora gaude, baina ekinzen arabera aritzen gara; adibidez, Kanpomartxo antolatzeko 20 bat aritzen gara lanean, baina bertso-saioak, edo bestelako ekimen batzuetarako, gutxiago izaten gara, egunaren eta jardueraren arabera da hori.



**Abenduaren 3a**  
«Aurten, batetik, Gaitu kanpainaren proposamena egin ziguten Euskaltzaleen Topagunetik eta horren inguruan euskarazko grabaketak egingo ditugu; bestetik, Erandiogoikoan, Astrabudian eta Altzagan hainbat ekintza antolatuko ditugu abenduaren 1, 2, 3 eta 4an»

MIKEL ZARATE  
BERBOTSEKO KIDEA

Horrez gainera, elkartearen ekintza nagusiak mantentzen ditugu, eta hainbat proiektu berri ere baditugu, eta horiei esker ere jende berria hurbiltzea espero dugu.

**Erandiok badauka bere bizkaiera berezia ere, hori berreskuratzeko asmorik badakazue?** Bai, bagabiltza horretan ere, Erandiogoikoan eta Goierriin, bereziki. Gazteok asko baloratzen dugu gure herriko euskara edukitzea, eta badago horretarako ahalegina; adibidez, Nahia Eguskizak eta Iñaki Gamindek horren inguruan egin zuten ikerketa eta hitzaldiak jarraitu ditugu.

**Zein asmo daukazue etorkizunera begira?** Etorkizunera begira herrian aniztasuna jorratu nahiko genuke eta atzerritarrekin elkarlana sustatu. Berbalagunez gain, Ulerlagun ekimeneko proba pilotuan ere gaude sartuta; Berbalagunetan sartzeko mintzamen-maila baxuegia duen jendearekin taldeak osatzen, «ulerrizketa» metodologiaren bitartez ulermena lantzeko, hain zuen. Proba hori Donostian, Erandion eta Aretxabaletan egiten ari gara bigarren urtez. Horrez gain, nagusien etxeetan ere egon gara horietan dauden euskaldun zaharrekin berbalagun taldeak osatzen, eta nahi dutenei euskara irakasten. Beste proiektu batzuk ere definitzen ari gara eta lantaldeak osatzen gabiltza; adibidez, Haurren Aurrean Helduok Heldu dinamika urtean zehar ere zabaldu nahiko genuke ekintza ezberdinen bitartez. Oraindik gauzak zehaztea falta zaigu, baina bagabiltza zeregin horretan. ◀

**Abenduaren 3a**

**Euskararen eguna**

Tailerrak  
Bakarrizketa  
Jolasak familia giroan  
"GAITU" kanpaina  
Eta beste hainbat ...

**E!**  
Erandio  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

Zabal daigun gure ahotza!

Ikusi egitarava

www.erandioko@uskarazerbitzua.eus



**Bizarra Lepoan euskara elkarteak** Getxo euskalduntzen

# «Ezagutzak gora egin arren, kale erabileran lana egiteke dago oraindik»

IKER RINCON MORENO ▶

**I**a 30 urteko ibilbidea egina du Getxo-ko Bizarra Lepoan euskara elkarteak. 1995ean sortu zenetik, urrats kualitatibo eta kuantitatiboak egin dituzte udalerrian euskararen aktibazioa eta transmisioa hauspotzeko hainbat sektoretan, hala nola kirolean, aisialdian eta kulturaren. Mikel Barcena eta Mikel Astorki kideek diotenez, bidean, aurrerapauso sendoak egin dira euskararen alde, «nahiz eta oraindik asko dugu egiteko». Diotenez, ezagutzak gora egin du, «haurrak euskarazko hezkuntza-erduetan inskribatzeagatik eta euskaltegien lanari esker batez ere», baina erabilerak erritmo berean gora egin ez duela deitoratzen dute: «Kaleak ditugu irabazteko oraindik, eta hori ez da erronka txikia».

Bizarra Lepoan elkarteak langile bik –Barcena eta Astorki– eta 250 bazkidek osatzen dute. Hala ere, urtean 30 pertsona baino gehiago kontratatzen dituzte antolatzen dituzten proiektuen eta saioren dinamizaziorako. Izan ere, besteak beste, Bapiruke euskal aisialdirako proiektuaz arduratzen dira, baita Gehitu Kirola eta Kultura egitasmoak biderratu ere, tokiko elkarteak euskara gehiago erabiltzeko urratsak emateko. Horrez gainera, bertako ondarea ezagutarazteko toponimia ibilbideak egiten dituzte, Euskaraldia antolatzen dute, eta Haurren Aurrean Helduok Heldu egitasmoa koordinatu eta beste hainbat ikastaro, hitzaldi eta tailer prestatzen dituzte ere. «Orokorrean, jendearen jarrera oso



Mikel Barcena eta Mikel Astorki dira elkarteko langile egonkorak. IKER TORRE NAVARRO

**Getxo euskaldunago bat egiteko zereginen, 2000tik Egizu elkarteak dute bidelagun, eta elkarlan hori «oso aktiboa eta emankorra» dela diote Bizarra Lepoaneko kideek.**

positiboa da egitasmo horiekiko, baina, batzuetan, parte-hartzea zabalagoa izatea gus-tatuko litzaiguke». Hala ere, diotenez, dituzten baliabideak ez zaie erraza egiten lan hori bideratzea, «eta proiektu berrien bila etengabe ari garen arren, askotan ez dugu baliabiderik behar horiei erantzuteko».

1995etik, euskalgintzak babesa irabazi du, baina oraindik asko dagoela egiteko uste dute elkarteko kideek. «Euskara babestetik, euskararen aldeko plan integral bat jorratzera salto egitea falta delakoaren sentsazioa dugu». Uste dute euskara bizitzaren alor guztietara heldu behar dela, «eta horretarako, administrazioak dituen sail guztietan kon-tuan hartu beharko litzateke». ◀

**AINGARA**  
BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

**Denda berria!**  
Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

944 038 953 • www.bordadosaingara.com

**JUAN MARI**

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisauna eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25



Iñigo Urrutia Legelaria

# «Epaileak hizkuntza politika egiten ari dira»

**Euskararen aldeko aldarria ozen entzun zen azaroaren 4an Bilbon Euskaingintzaren Kontseiluak antolatutako manifestazioan. Euskararen kontra egiten ari diren *oldarraldia* salatu zuten aho batez milaka lagunek eta, ildo horretan, Iñigo Urrutia legelariagaz elkartu gara euskararen normalizazio prozesuaren inguruan hitz egiteko, baita egungo hizkuntzaren egoeraren berri izateko ere.**

TESTUAK: NAHIA MARTINEZ GONDRA ARGAZKIA: IKER TORRE NAVARRO ►

**Uztailean, Espainiako Konstituzio Auzitegiak bertan behera utzi zuen Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 6.2 artikulua. Horrek, ahalbidetzen zien EAEko udalei erakunde barruko idatzizko dokumentuak erabat euskaraz egitea. Horrez gain, euskararen kontrako beste hainbat sententzia ere egon dira azken urteotan. Zein ezaugarri dute komunean horiek guztiek?** Benetako oldarraldi baten aurrean gaudela iruditzen zait. Gauza asko ezkututzen dira horren atzean, baina, bereziki, iruditzen zait maila ideologikoan aldaketa bat gertatu dela. Orain arte, euskarak garatzeko esparrua izan du, normalizazio prozesua, hain zuzen, horretan datzalako. Aitzitik, badirudi azken urteetan ideologia berri bat oldartzen ari dela: hizkuntza propioen normalizazio hori gelditu eta gaztelaren defentsa hasi da. Ikuspegi juridikotik, gaztelarak ez du defentsaren beharrik, izan ere, hizkuntza pribilegiatua da. Hala ere, planteatu egiten da gaztelera defendatu behar dela, eta horretan dihardute azken urteetako sententziek. Epai guztietan ageri da ideia hori: euskara ez dakitenez eskubideak dituztela eta horiek defendatu behar direla normalizazio prozesu horren gainetik.

**Epailleek arau eta legeak baliogabetzen jarraitzekotan, zer-nolako ondorioak jasango ditugu euskaldunok?** Egoera benetan larria

## Ideologia

**«Badirudi azken urteetan ideologia berri bat oldartzen ari dela: hizkuntza propioen normalizazio hori gelditu eta gaztelaren defentsa hasi da. Ikuspegi juridikotik, gaztelarak ez du defentsaren beharrik, izan ere, hizkuntza pribilegiatua da. Hala ere, planteatu egiten da gaztelera defendatu behar dela, eta horretan dihardute azken urteetako sententziek. Epai guztietan ageri da ideia hori»**

da. Esan bezala, euskara egoera ez-normalizatuan dago. Nahiz eta hizkuntza ofiziala izan, bere egoera erreala ez dator bat duen estatusarekin. Halako sententzia hauekin, eta aurrerantzean etorri daitezken gehiagorekin, lortzen ari dena da euskararen alde egon daitezkeen tresnak blokeatzea. Beraz, euskararen aurrerabideei bide ematen dieten gailuak indarrrik gabe gelditzen ari dira. Lagun batek esan zidan, «euskarak galbidea du 30 urtetara, baina erabateko normalizazioak hemendik eta 150 urtetara». Beraz, hurbilago gauda amildegitik zerutik baino. Ez bada aurrera egiten, izokinarena gerta daiteke: izokinak ez badu eragiten errekan gora egiteko, korronteak atzera botako du.

**Aipatu duzu egoera «larria» dela. Uste duzu jendea aferaren larritasunaz ohartu dela edo arazoa nolabait leuntzen ari dira?** Azaroaren 4ko manifestazioak erakutsi zuen bada-goela larritasunaren kontzientzia hori. Iruditzen zait gizarte mailan dagoen hausnarketa kolektibo honek bide eman behar diola momentu honetan beste hausnarketa politikoa bati: momentu honetan, epaileak hizkuntza politika egiten ari dira. Administrazioari esaten ari diote euskararen tratamendua zein izan behar den, eta hori ez dagokie haiei. Epaillei dagokie aztertzea ea legearen araberakoa den hizkuntza planifikazioa ala ez.

Baina azken sententziek erakusten dutena da edozein dela planifikazioa edota legeek esaten dutena, epaileak gailentzen ari direla euren irizpideak ezarriz.

Esaterako, epaileek diote, udaltzainek bikoteka patruilatzen dutenez, bi horietatik bat euskalduna izanda nahikoa dela, edozein dela ere udalaren hizkuntza planifikazioa. Beste kasu batean, funtzionario bati bigarren hizkuntza eskakizuna ezarri zitzaion, eta epaileak bere sententzian adierazi zuen euskara munduko laugarren hizkuntza zailena zela eta administrazioa horren kargu egin beharko zela, hizkuntza eskakizuna malgutzuz. Sententzia horiek ez dute inolako babes juridikorik, eta nik uste dut gizartea horren kontziente dela; beraz, horrek beste fase bat ireki beharko luke.

**Nabarmendu duzunez, askotan euskararen zailtasuna azpimarratzen dute hizkuntza ikasteko oztopo gisa. Halere, egun inoiz baino erraztasun eta baliabide gehiago daude euskara ikasteko. Euskarafobiaren parte dela uste duzu?** Nire ustez, hemen atzean dagoena da hizkuntza supremazismoa. Zehazki, nagusia den hizkuntzaren aldeko politika defentsiboa deritzo. Hala, hizkuntza normalizazioaren gainetik gailendu nahi dute. Aitzitik, supremazismoak kasu honetan ez du inolako zentzurik. Benetan paradoxikoa da, euskara delako babesa behar duen hizkuntza. Joera politiko eta judizial horiek agertzen dutena da euskararen aldeko neurriek gaztelera oztopatzen dutela. Halaber, nabarmentzen dute euskara oso zaila dela, eta, beraz, administrazioek aldatu behar dutela hizkuntza politika berezitasun horietara. Hori ikusmoldea erabat okertzea da. Batetik, hizkuntza eskubideak baldin badaude eta euskara erabiltzea euskararen ofizialtasunetik ondorioztatzen den eragina bada, funtzionario gaituak izan behar direlako udalekoak. Bestetik, debate faltua da lan- eta hizkuntza-eskubideak pare-parean jartzea. Hain zuzen, konstituzio auzitegiak 1991. urtean esan zuenaren ildora, euskararen gaitasuna eskatzea ez dago meritu eta gaitasun printzipioen kanpoan, baizik eta euskararen ezagutza funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren beste baldintzen gainekoa da. Administrazioan sartzeko zuzenbide edo ekonomia ikasketak eskatzen badira funtzio batzuk eskatzen direlako, euskara eskatzea baldintza horien barruan egon beharko litzateke, ez kanpoko zerbait moduan.

**Beraz, zein da irtenbidea euskara hizkuntza pribilegiatuen hegemoniaz askatzeko?** Momentu honetan, legediaren bidea da ir-



Euskal

### Legedia

«**Helburuak birpentsatu eta nolabait estatuarekin itun berri bat egin behar dute euskararen normalizazio prozesua arlo erabat erreserbatu modura onartu dadin. Estatuaren injerentziarik gabeko esparru bat izan beharko litzateke guk erabat modu autonomoan arautu dezagun**»

tenbide bakarra. Alde batetik, legislazioa aldatu beharko litzateke, eta estatuarekiko harreman berrian, bai EAEk, bai Nafarroak, hizkuntzaren afera zutabe nagusitzat hartu beharko lukete estatuarekin izango duten enkaje berrietan. Autogobernuan eta autogestioaren oinarri nagusienetarikoa hori behar duelako izan; euskararen normalizazio prozesua. Helburuak birpentsatu eta nolabait estatuarekin itun berri bat egin behar dute euskararen normalizazio prozesua arlo erabat erreserbatu modura onartu dadin. Estatuaren injerentziarik gabeko esparru bat izan beharko litzateke guk erabat modu autonomoan arau dezagun. Sistemaren konfigurazio bera da asmatu beharrekoa, eta horretarako legisladoreek parte hartu behar dute.

**Zer gabezia ditu gure egungo hizkuntza sistemak?** Gure sistema hizkuntza askatasunean oinarritzen da. Esaterako, telebista euskaraz jaso nahi duenari, ETB1 jarri, eta gatzelaniaz



Herriko Unibertsitateko administrazio-zuzenbideko irakaslea da Iñigo Urrutia. IKER TORRE NAVARRO

jaso nahi duenari, ETB2. Halaber, Euskal Herriko Unibertsitatean gela batean euskarazko ikasleak daude, eta bestean gazteleraazkoak. Nolabait banaketa sistema bat da. Nire ustez momentua heldu da hausnartzeko ea siste-

«Gure hizkuntza sistema segregazioan oinarrituta dago»

ma horrek noraino eraman gaitzakeen, izan ere, segregazioan oinarrituta dago. Iruditzen zait etorkizuneko Euskal Herrian hizkuntza propioari toki pribilegiatua ezarri beharko litzaiokeela. Gero, arloz arlo ikusi beharko litzateke jauzi kualitatiboak zein izan beharko liratekeen, baina helburuetan, bi hizkuntzen ofizialtasuna eta elebitasuna izatea ez zait iruditzen xede errealista denik. Administrazio arloari dagokionez, Katalunian eta Galizian langile izateko nahitaezko baldintza da katalana edo galiziera jakitea. Eta hori Europan gauza oso ohikoa da. Guk, aldiz, txikira jo dugu: gure hizkuntza politika talde minorizatuaren begietatik diseinatu da.

**Urbe Kostan, Erandion, Bilboko Administrazioaren Auzien 1go Epaitegiak atzera bota zuen udaltzain jarduteko lanpostu bati ezarritako hizkuntza eskakizunaren derri-gortasuna, B2 mailarena, hain zuzen. Ez zuen lortu Udalak eskaera onartzea, baina Justizia Auzitegira jo ondoren, arrazoia eman zioten...** Behin behineko funtzionario bat zen eta estabilizazio prozesuan gertatu zen. Argi geratu behar da hizkuntza eskakizunen proportzionaltasuna udalerraren egoera soziolinguistikoak ematen duela. Hau da, Erandion euskaldunak % 40 badira, administrazio lanpostuetatik ehuneko horretan hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa izan behar da. Kasu horretan, eskakizun hori erabat zilegi eta legearen arabera da. Baina, kasu horretan ere, epaileek ez zioten gure araudiari begiratu, eta adierazi zutena izan zen diskriminatzailerik dela pertsona baten kasuan euskara nahitaezko hartzea. Sententzia horrek ez zuen oinarri juridikorik izan legeak ezartzen duen proportzionaltasun eskemaren barruan sartzen zelako eskakizun hura. Hor ikusten da gaztelaren aldeko isla bat. ◀

# LEMOIZEN

**ABENDUAK 1**



**HITZALDIA  
TAILER PRAKTIKOA**

Adimen artifizialari euskaraz irakastearen erronka

**19.00etan**  
URIZARKO KULTUR GELAN

# EUSKARAZ BLAI

**ABENDUAK 2**



**ANTZERKIA  
ZIRKOTEKE**

**18.00etan**  
URIZARKO KULTUR GELAN

**ABENDUAK 3**



**TRIKI POTEOA**

**13.00etan**  
ARMINTZAN KALEZ KALE

**ABENDUAK 3**



**IHES GELA  
EUSKAL MITOLOGIA**

**18.00etatik aurrera**  
ARMINTZAKO KULTUR ETXEAN







# Euskal jainkoak

**M**usikariak? Kirolariak? Politikariak? Nor ote dira, ba, euskal jainkoak? Euskal jainkoak... euskal jainkoak dira. Izan ere, euskaldunok **monoteistak**, **agnostikoak** edo **ateoak** izan aurretik, **politeistak** izan ginen. Euskal jainko horietako batzuen izenak ikusiko ditugu hemen. Horretarako Akitania aldera joko dugu, denboran atzera eginda.

Julio Zesar enperadore erromatarrek erabili zuen lehenbizi Akitania **toponimoa** (K.a. 50. urte inguruan), eta lurralde hura Garona ibaiaren, Pirinio mendien eta Ozeano Atlantikoaren artean kokatu zuen. Gero, Augusto enperadoreak zabaldu bide zuen lurralde haren hedadura. Baina Estrabon geografo greziarrari esker jakin dugu garai hartan argi bereizirik zeudela akitaniarren zatia (hego-mendebaldekoa) eta galiarrena (ipar-ekialdekoa). Guk lehenengoari erreparatuko diogu. Izan ere, badirudi akitaniarren Akitania hartan hitz egiten zen hizkuntza nagusia euskararekin senidetutako hizkuntza zela, euskararen beraren aurreko **berbeta** ez bazen.

Akitaniera haren lekukotasun idatziak oso dira urriak. Interesgarrienak, zalantza barik, lurralde hartan eta ingurukoetan aurkitutako **hilarri** eta **aldare irarriak**, K.o. I-III mendeetan datatuak. Beraietan 400 bat **antroponimo** eta 70 bat **teonimo** topatu ziren, euretariko asko egungo euskaratik ulertzeko edota interpretatzeko modukoak.

Idazkun gehienok botuak dira, hau da, bertako jendeak jainkoei egindako eskaintzak, **eskertzak** edota **agintzak**. Eta zergatik hainbeste euskal izen erromatarrek nagusi ziren tokian? Erromatarrek ez zutelako eragozten tokian tokiko jainkoen **gurtza**. Hor dituzue euskal jainko zenbaiten izen eder askoak, gaurko grafian:

*Abelion, Aberri, Aereda, Ageio, Aherbelste, Alardosto, Andei, Andose, Arardo, Arhe, Arixo, Artaxe, Astoiluno, Baeserte, Baiase, Baikorrigo, Baiosi, Baskei, Beisirise, Belgoni, Boko, Boriño, Daho, Elhe, Erdae, Erditse, Erge, Erriape, Garri, Haloiso, Harausoni, Helase, Herauskorritsehe, Idiate, Iluni, Ilurberrixo, Isornausi, Lahe, Larrasoni, Leheren, Loxae, Lurgorri, Sela-tse, Suhugio, Xuban.*

Baina zelan jakin izenok akitaniar euskaldunenak direla, eta ez, adibidez, zeltenak edo iberiarrenak? Gorrotxategi filologo adituaren esanetan, *h*-an legoke gakoetako bat. *H*-dunak ia seguru akitaniarrak dira, galiaran eta iberieran ez delako *h*-rik dokumentatzen izan. Izen hibridoak ere ba omen daude.

Honaino ibilaldi **onomastikoa**. Pozik lotzen naiz antzinako euskal jainko izen batzuk eza-gutarazi ez ezik, euskara bera jainkotzen lagundu badugu. Eta zuk, zer promesa egingo diozu Euskara jainkoari Euskaraldian? Eta Euskaraldia igarota? ◀

## Berba azoka

### Monoteista

Jaingo bakarra duena.

### Agnostiko

Jainkoa, metafisikoa den aldetik, ezin ezagutzekoa dela uste duena.

### Ateo

Jainkogabea.

### Politeista

Jaingo bat baino gehiago duena.

### Toponimo

Leku izena.

### Berbeta

Hizkuntza, hizkera, hizketa.

### Hilarri

Hilobia estaltzen duen harria, zein hilobi gainean eraikitzen den oroitarria.

### Aldare

Jaingkoei opariak eskaintzeko harria edo leku jasoa.

### Irarri

Gai gogor batean lanabes puntadun batez marraztu.

### Antroponimo

Pertsona izena.

### Teonimo

Jaingo izena.

### Eskertza

Esker ematea, esker ona.

### Agintza

Promesa.

### Gurtza

Jainkoari egiten zaien erlijiozko gorazarrea.

### Onomastiko

Izen bereziei dagokiena.





Donostiako San Telmo museoan, 2024ko KORRIKAREN aurkezpena egin zuten azaroaren 16an.

# 23. KORRIKAK herri-aldarri alai eta tinkoa izan nahi du: HARRO HERRI

**H**ARRO HERRI da 23. KORRIKAREN leloa: harro eta herri. KORRIKAK herri aldarri alai eta tinkoa izan nahi du; zabaldu nahi dugu euskararen aldeko mugimendua: mugi dezagun euskararen herria, ingurua mugiarazi arte. Bidegurutze honetan, garaia da aho betez oihukatzeke euskaraz bizi nahi dugula. Euskarak aurrera egingo badu, herriaren erabakitasunagatik izango da, eta KORRIKAK aukera bikaina ematen digu herri pulstua aktibatzeke, aldarri tinko bat egiteke. Era berean, KORRIKAK batzen gaitu, komunitate baten parte sentiarazten gaitu, ingurua mugitzen du, jende gehiago euskarara ekarrita. Euskarak mugitzen du KORRIKA, eta KORRIKAK mugituko du euskal komunitatea.

AEK-k antolatzen du KORRIKA. AEK erakundeak euskararen normalizazioan dihardu: ezagutzan, erabileran eta sustapenean. AEKren xedea da Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizitzea, eta, horretarako, nahitaezkoa da euskara eroso erabili ahal izateko guneak sortzea eta garatzea. Zentzu horretan, gainera, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa ezinbestekoa da, euskal herritar guztiak euskara ezagutu behar dute. Horretarako bideak etxeko transmisioa, hezkuntza edota helduen euskalduntzea dira. Horiek guztiak beharrezkoak ditugu; hiruetako batek kale eginez gero, herren eta nekez iritsiko gara euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa erdiestera. Euskalduntzen direnek doako prozesua behar dute, ezin diegu traba gehiagorik ezarri. Bestalde, sasoi honetan ezin dugu ahaztu euskaldunon eskubideen aurka bizirik segitzen duen oldarraldia. Botere judiziala hizkuntza politika

egiten ari da eta hori ezin dugu onartu, euskararen normalizazioaren kontrako eraso larriak dira; herritarren eskubideak erdigunean jartzeko garaia da. Horrez gain, jarraitzen dugu ikusten Administrazioetatik ez dela bideratzen euskarari lotutako aski baliabiderik; hizkuntza-politika ausartagoak eta inbertsio handiagoak behar dira. Diru-laguntza horiek nahikoa ez eta 23. KORRIKAK jasoko duen dirua Euskal Herri osoan euskararen normalizazioa aurrera eraman ahal izateko baliatuko du AEKk.

## AEK Uribe Kostan:

**Leioan:** 944 646 063 · lamia@aek.eus · Dr. Luis Bilbao Libano 8, 48940 · Astelehenetik barikura 09:00-14:00 / 17:00-20:00

**Getxon:** 944 304 734 · lauaxeta@aek.eus · Iparbide Kalea, 6, 48991 · Astelehenetik eguenera 09:00-20:00, barikuetan 09:00-14:00

**Plentzian:** 946 773 607 · jentilbaso@aek.eus · Kristo Eskilara Kalea, 8, 48620 · Astelehenetik barikura: 11:00-13:00/ 17:00-20:00

**Gorlizan:** 94 677 36 46 · jentilbaso@aek.eus · Iberre plaza, 5, 48630 · Astelehenetik barikura: 10:00-13:00 / 17:00-20:00

# Euskara hauspotzeko hamaika

## Barrika

Azaroak 30, eguena

### Ander Deuna Eguna

11:00 | Goierrin

Meza, Aita Gotzon abesbatza, luntx herrikoia eta *De Barrika a La Habana* liburuaren aurkezpena.

Abenduak 3, domeka

### Musika: Patxi eta konpainia

12:00 | Elexaldeko frontoian

### Ikuskizuna: *Kantu kolore*

18:00 | Udaletzeko plazan

Umeentzako proposamen didaktikoa.

## Berango

Abenduak 1, barikua

### Tailer bereziak eta ipuin-kontalaria

16:30 | Berangoeta kultur etxean

2020 eta 2015 urteen artean jaiotako umeentzat. Izena eman behar da azaroaren 23a baino lehen.

### Tailer bereziak

17:30 | Santa Ana kultur etxean

2014 eta 2008 urteen artean jaiotako umeentzat. Izena eman behar da azaroaren 23a baino lehen.

Abenduak 2, zapatua

### Karaoke ibiltaria

18:30 | Sabino Arana kalean

### Disko-festa

20:00 | Frontoian

Abenduak 3, domeka

### Antzerkia: *Arrainak bihotzean*

18:00 | Berangoko antzokian

Umeentzako obra.

## Erandio

Abenduak 1, barikua

### Askotariko tailerrak

17:30 | Erandiogoikoan

### Dantzaplaza Egurre taldeagaz

19:00 | Erandiogoikoan

### Kalejira eta trikipoteoa

20:00 | Erandiogoikoan

Abenduak 2, zapatua

### Zapatutan familian

17:30 | Josu Murueta kultur etxean

### Dantzaplaza

19:30 | Josu Murueta plazan

### Erromeria: Oxabi

22:30 | Mendiguren plazan

### Manifestuaren irakurketa

00:00 | Mendiguren plazan

Abenduak 3, domeka

### Mahai jolasak eta Gaitu kanpaina

12:00 | Merkatu zaharrean

### Kantak eta dantzak

13:30 | Jado kalean

### Zinema euskaraz: *Gautxori*

17:00 | Merkatu zaharrean

### Bakarrizketa: *Tu-Tum, Platz!*

19:00 | Josu Murueta kultur etxean

Jon Plazaolaren eskutik.

## Getxo

Azaroak 30, eguena

### Ase Bertsoz

20:00 | Azebarri kultur elkartearen

Bertso-pikoteo irekia ALBEko bertsolariakaz.

Abenduak 1, barikua

### Kontzertua: Petti

21:00 | Azebarri kultur elkartearen

Konpositore nafarraren emanaldia.

Abenduak 2-3

### 24 orduz igerian euskararen alde

Fadura kiroldegian

Swim Camp elkartearen IgeriBizi ekimena.

Abenduak 2, zapatua

### Kontzertua: Su Ta Gar

22:00 | Muxikebarri Antzokian

Eibarko talde enblematikoa *Alarma* diskoa aurkeztera dator.

Abenduak 3, domeka

### Dantzaldia

12:00 | Algortan

Itxartuk antolatuta.

Abenduak 4, astelehena

### Trikigosaria eta trikimerienda

09:00 eta 17:30 | Muxikebarri Antzokian

Goizean eta arrastian egingo dute kantuan Etxebarria aita-semea trikitalariakaz.

Abenduak 10, domeka

### ALBE Gala eta Balendin Enbeita bertsopaper sariketa

12:00 | La Ola jatetxean

A. Egaña eta N. Elustondo bertsolariakaz.

### Go!azen 10.0

16:30 eta 19:00 | Muxikebarri Antzokian

Basakabiko gazteak Getxora hurbilduko dira.

## Gorliz

Abenduak 1, barikua

### Disko-festa: Ken bat

17:00 | Eliz plazan

# Euskararen Nazioarteko Eguna Leioan, zatoz!



Ipuin kontalaria, Eskape Room, musika, herri kirolak, zinema, bertsolariak ...

Azaroak 30, abenduak 1,2,3 eta 4  
Programazio guztia, ordutegiak, datak eta lekuak ikusteko kontsultatu QR kodea





# aukera

UrIBE Kostako udalerrietan hainbat proposamen izango dira Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Jarduera esanguratsuenak zerrendatu ditugu hemen, ezer ez galtzeko.

## Gaituren grabazioak

17:00-18:15 | Udaletxeko sarrerako bulegoan  
Adimen artifizialari euskara irakasteko ekimena.

## Antzerkia: Txizatoki bat eszenatokia

19:00 | Udaletxeko areto nagusian  
Patxo Telleriaren antzezlana dibertigarria.

## Euskal kantaldia: Josu eta Unai

19:45 | Udaletxeko areto nagusian

## Leioa

Azaroak 30, eguna

## Escape room mitologikoa

17:30 | Gaztegunean  
Hiru saio egingo dituzte, txanda bakoitzeko 12 eta 30 urte arteko 10 pertsonagaz bakoitza.

Abenduak 1, barikua

## Musika emanaldiak

19:30 | Estartetxan eta Udondoko bulebarrean  
Trikielero eta Udondo Txikiteroak taldeen eskutik.

Abenduak 2, zapatua

## Herri kirolak

11:30 | Sabino Aranan  
Euria bada kiroldegira mugituko dituzte ekintzak.

## Zimena: Boo Kwai eta museoaren lapurreta

17:30 | Kultur Leioan

## Escape room: museoa

18:00 | Udaletxeko frontoian

## Bertsolari-txapelketa

19:00 | Boulevarden  
Peru Vidal, Josune Aramendi, Unai Iturriaga eta Eli Pagola. Gai-jartzailea: Beñat Vidal.

## Zinema: Bidasoa 2018-2023

20:00 | Kultur Leioan

Abenduak 3, domeka

## Nekazaritza azoka

09:00 | Boulevarden, Jose Ramon Aketxe plazan eta Errekalde plazan

## Escape room: museoa

12:00 | Udaletxeko frontoian

## Zimena: Boo Kwai eta museoaren lapurreta

17:30 | Kultur Leioan

## Zinema: Bidasoa 2018-2023

20:00 | Kultur Leioan

## Lemoiz

Abenduak 1, barikua

## Gaituren grabazioak

19:00 | Urizarko kultur gelan  
Adimen artifizialari euskara irakasteko ekimena.

Abenduak 2, zapatua

## Antzerkia: Zirkoteke

18:00 | Urizarko kultur gelan

Abenduak 3, domeka

## Triki-poteoa

13:00 | Armintzako kaleetan

## Ihes gela: euskal mitologia

18:00 | Armintzako kultur etxean

## Plentzia

Abenduak 1, barikua

## Aurkezpena: Euskararen erronka Plentzian

19:00 | Goñi Portalen

Plentziako Euskararen Mahaian egindako ekarpenak, proposamenak eta erronkak batu ondoren, datozen lau urteetan herrian lortu gura diren proiektuen aurkezpena egingo dute.

## Sopela

Abenduak 1, barikua

## Kulturaldia: bertso-saioa

20:00 | Kurtzio kultur etxean  
Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Ane Labaka, Imanol Uribe eta Sustrai Colina. Gai-jartzailea: Haritz Urrutikoetxea.

Abenduak 2, zapatua

## Bertso-jira musikatua

17:30 | Sopelan  
Inazio Vidal eta Etxahun Lekue bertsolariakaz.

## Kontzertua:

## Xabi Aburruzuaga Band

20:00 | Sopelako frontoian  
Aurrez aurre dantza emanaldia.

Abenduak 3, domeka

## Antzerkia: Kelonia eta itsasoa

18:00 | Kurtzio kultur etxean  
Adiskidetasunari eta biziraupenari buruzko abesti itxurako istorioa. Sarrera 4/5 euro.

## Urduliz

Abenduak 2, zapatua

## Kalejira musikatua

19:00 | Urdulizko kaleetatik  
Herriko elkarteetan abestiakaz.

## Kontzertua: Asago

21:00 | Elortza plazan  
Euskararen alde kontzertua.

Abenduak 3, domeka

## Euskararen Eguna

12:00 | Antsonetako plazan  
Euskararen aldeko adierazpena, Iratxo Gorria dantza-taldearen emanaldia, txalaparta-tailerra, talo-tailerra eta egurrezko jolasak.



# Erabili meloia

## Ez egin erosketak oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin

# Makinei euskara irakasteko kanpaina da Gaitu, mundu digitaletik kanpo gera ez gaitezen

**Makinek euskara erabil eta uler dezatela gura badugu, lehendabizi erakutsi beharko diegu. Hori da hain zuzen Gaitu kanpainaren xedea: milaka ahots batzea makinek ere euskara ikas dezaten.**


ANDER ZARRAGA ▶

**A**benduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Egunera bitartean, Gaitu adimen artifizialari euskara irakasteko kanpaina abiatu dute. Horren atzean daude, besteak beste, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaleen Topagunea eta Euskararen Erakunde Publikoa. Egitasmo horren helburua sinplea da: Common Voice software librearen bitartez milaka euskaldunen ahotsak jasotzea, daborduko mugikorrean, GPSan, etxean edo dena delakoan erabiltzen ditugun gailuetan euskara erabiltzeko aukera izateko.

Zeregin horretan ere murgilduta dago Librezele euskara informatikaren munduan bultzatzeko lantalde irekia. Azpimarratu dute helburuak lortze aldera, software askeak erabiltzea beharrezkoa dela, «libreak ez diren adimen artifizialek «ez dituztelako erabiltzaileak errespetatzen» eta horiek kontrolatzen dituzten enpresentzat euskara ez dela-

## Software libreak

**«Librezaleen software, protokolo eta datu librearen aldekoak gara, besteak beste, euskaldunok euskaraz aritzeko dugun eskubidea bermatzen dutelako. Adimen artifizial libreek ere hori ahalbidetzen dute»**



Abenduaren 3ra bitartean,

ko «merkatu interesgarria», beraz, «baztertu egiten gaituzte eta erdarara jotzera behartu».

Azaldu dute Gaitu kanpainaren bitartez bilatzen dena dela Common Voice software librea erabiliz adimen artifizialak euskara modu egokian uler dezan behar adina datu jasotzea. «Ikasketa automatikoko algoritmoek datu asko behar dituzte eta jai dugu euskarazko datu pila hori batzera animatuko diren ekimen pribatuen zain geratzen bagara. Batu gaituzten euskaldun hitzun ahalik eta gehien eta sor dezagun ahots banku orekatu bat», dei egin dute Librezeleko kideek.

# Biharko mundua euskaraz

Azaroaren 27tik abenduaren 1era,

## Euskararen astea



**ander deuna**  
IKASTOLA

*Biharko mundua gaur eta hemen*



# BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI  
EUSKARAZ  
IRAKASTEKO



eskualdeko hainbat udalerritan grabazioak egingo dituzte, tartean, Barrikan, Erandion edo Lemoizen.

Adierazi dutenez, daborduko ikasketa prozesu hori martxan dago: «Mozillak bere hizketaren ezagutzaille librea sortuko du eta euskara ulertzen duen Coqui liburutegi librea prest dago nahi duenak berarekin produktu eta zerbitzu berriak sortzeko». Hala ere, makinek euskara modu egokian uler eta erabil dezaten, sistema bi horiek erabiltzen duten Common Voice elikatzen jarraitu beharra dago. Gainera, ahots biltegi horiek libreak direnez, edonork erabil ditzake eta egitasmoaren arrakastak, «oraindik euskaraz eskuragarri ez dauden beste gailu eta zerbitzu batzuk ere goizago ala beranduago euskara ere ulertzerantz animatzea ekar dezake».

Zeregin horretan parte hartzeko, gaitu. eus atarian mikrofonoa duen gailu batez sartu besterik ez dago. Hasteko, «eman zure ahotsa» dioen botoia sakatu eta banan-banan azalduko diren esaldiak ahots goran irakurri beharko dira. Grabaketak zuzenean gordeko dira Common Voice webgunean eta erabilgarri egongo dira. Horrez gain, beste batzuen grabaketak balioztatzeko aukera ere bada, beste norbaitek esandakoa ondo grabatu duen ala ez esateko. ◀



Abenduak 3

*euskararen  
eguna*

“Hizkuntza  
herri baten  
identitatea da”



**Berango**  
Guztion konpromisoa  
Un compromiso común

Ibon Arregi Swim Camp Getxo taldeko eta IgeriBizi ekimeneko kidea

# «Euskararen erabilera haus

IKER RINCON MORENO ▶

**E**uskararen Eguna aitzakiatzat hartuta, abenduaren 2-3an, Swim Camp Getxo igeriketa-taldeak 24 orduz euskaltzalez bete gura du Algortako Fadurako igerilekua euskararen alde. Ibon Arregi talde horretako kideak azaldu duenez, IgeriBizi egitasmo soziala sortu dute ekimen horretarako. Helburua da euskararen erabilera hauspotzea kirolaren munduan eta, gainera, parte hartzeko izen-emateen eta igeriketa-txanoen salmentaren bitartez lortutako diru guztia EuskarAbentura elkarteari bideratzea, «egiten duten lan bikaina urte luzez egiten jarrai dezaten».

## Nondik dator IgeriBizi sortzearen ideia?

Gure eragin-eremua kirola izan arren, gizartean ere eragitea nahi dugu. Horrek baditu behar batzuk, baita ardurak ere. Hala, ikusi ditugun kezkak geureganatu eta saiatu gara ditugun baliabideen bitartez erantzun bat ematen. Hala, Getxon euskararen erabilera hauspotzeko zer egin genezakeen hausnartu genuen, eta hala etorri zen IgeriBizi sortzearen ideia, urte asko mantentzeko asmoarekin datorrena.

**Ekimen horren bitartez bildutako diru guztia EuskarAbentura elkarteari emango diozue. Zein formula erabiliko duzue diru hori lortzeko?** Sarrera edo parte hartzeko aukera 5 euroan jartzea erabaki dugu, ahalik eta euskaltzale gehien erakartzeko. Gainera, txanoak ere egin ditugu, 10 euroan saltzen ari



IgeriBiziren ekimena Algortako Fadura kiroldegian izango da. IKER TORRE NAVARRO



**GetxoGas**

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

**GetxoGason Euskararekin bat!**

*Iñaki Bitxitegia*



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3  
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1  
94 460 27 41

# potzeko ekimena da hau»

garenak. 500 egin ditugu, eta espero dugu denak saldu ahal izatea, diru-ekarpena ahalik eta handiena izateko.

**Nolakoa izango da eguna?** Egunean zehar, hiru kale izango ditugu erreserbatuta, bazkideek besteak erabili ahal izan ditzaten. Hala ere, eguerdian eta gauean, igerileku osoa izango dugu erabilgarri. Momentu horietan, gainera, jarduera bereziak izango ditugu. Horretarako, harremanetan jarri gara Getxo Rugby eta Getxo Igeriketa taldeekin, umeentzako 3x3ko *touch*-ak eta waterpolo partiduak antolatzeko.

**Ekimena Swim Camp elkartetik dator; zer garrantzia du euskarak talde horretan?** Guk badugu berezitasun bat, eta hori da helduentzako taldea garena; gure kideen batz beste-ko adina 40-50 urtekoa da. Gehienek ez daki-

## Abendukoaren ondoren, zer?

«Guri gustatuko litzaiguke urtero errepikatzen den ekitaldi bat izatea hau. Ez dakiguna da zein izango den formatua; guk orain 24 orduz igerian egitea aurreikusi dugu eta, ondo funtzionatzen badu, hala jarraituko dugu»

te euskaraz, eta, ondorioz, entrenamenduak gazteleraz idazten ditugu arbelean. Hala ere, azalpenak, pertsonalak direnean, euskaraz ematen dizkiegu euskaldunak diren kideei. Hala, gurean, euskararen presentzia entrenamenduetan handia izan ohi da; entrenatzaile guztiok euskaldunak gara, tituludunak, eta erabilera handia da gure artean. Baina esandakoa, ez da % 100ekoa, baina saiatzen gara.

## Euskarak bere lekua du kirolean Getxon?

Tokiko kirol elkarteek nahiko lan egiten ari dira euskalgintzan eta euskararen normalizazioan, baina oso zaila egiten zaie jende profesionala aurkitzea formakuntzarekin eta euskara maila ona duena. Orduan, nahiz eta kirol elkarteek ahalegina egin, errealitatea da entrenamenduetan eta partidu edo txapelketa ofizialetan euskara ia ez dela entzuten, eta hori penagarria da. ◀

URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA

Tantaz tanta,  
euskararen itsasoa!

MANCOMUNIDAD  
URIBE KOSTA  
MANKOMUNITATEA  
BARRIKA-BERANGO GORLIZ-LEMOIZ  
ILENTZIA-SOPELA-URDULIZ

EUSKARAZ  
BLAI

ABENDUAK 3 · EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**Gehitu Kirola** Euskara kirolean murgiltzeko hitzarmenak

# Getxoko 41 kirol klubek sinatu dute Gehitu Kirola hitzarmenetako bat euskararen alde

IKER RINCON MORENO ▶

**G**etxoko 41 kirol klubek sinatu dute Udalak eta Bizarra Lepoan euskara elkarteak bultzatutako Gehitu Kirola egitasmoak proposatutako hiru hitzarmen berrietako bat. Horien bitartez, elkarte horiek euren jardueretan euskara gehiago erabiltzeko konpromisoa hartu dute.

Gehitu Kirola ekimena orain dela 15 urte jarri zuten martxan, eta oraingo erronka da egitasmoa berritzea, indartzea eta gehiago ezagutaraztea, «kirolak ekarpen handia egin diezaiokeelako euskarari eta euskarak kirolean bide luzea duelako egiteko», zehaztu du Irantzu Uriarte Euskara zinegotziak.

Kontuak horrela, oraingo honetan, 41 kirol elkarteak sinatu dute proposatutako hiru hitzarmenetako bat. Horietatik, 31k aurretik sinatutakoa berritu dute, eta beste 10 elkarte egitasmoa batu dira aurrenekoz. Hitzarmenok egungo egoerara hobe moldatzeko egokitu dira, eta, hala, horrela banatu dira: Euskarari Bai -18 taldek sinatu dute-, elkar-teek euskarari sarbidea emango diote eta hizkuntza horren aldeko sentsibilizazioan lan egingo dute; Euskararen Bidean -18k sinatu dute-, euskararen erabilera bultzatuko dute

36

kirol klubek sinatu zuten mota honetako hitzarmenetako bat 2022an.

2022

urtean hitzarmenen bat sinatu zuten hainbat taldek daborduko ez dute berritu aurretik.

10

kirol elkarte berri batu dira egitasmoa aurretik. Beraz, kopuru aldaketak ez dira elkar-te bakoitzean egondako aldaketaren isla.



euren entrenamenduetan; eta Euskaraz Blai -bost taldek bat egin dute-, elkar-teen jarduna euskaraz egingo dute. Hitzarmena sinatu duten klubek horietan ezarritakoa bermatzeko konpromisoa hartu dute, eta hori betetzeko dela ziurtatzeko jarraipena egingo dute.

**ENTRENATZAILE ETA LANGILE EUSKALDUNAK.** Gaur egun, Getxoko kirol elkarteetako entrenatzaile eta langileen bi heren ahoz ondo moldatzen dira euskaraz, eta entrenamenduen erdia baino gehiago euskaraz edo gazte-leragaz tartekatuta egiten da, Bizarra Lepoan euskara elkarteak kirol taldeei bidalitako

**SAN NIKOLAS IKASTOLA**

**ERDIGUNEAN ZU**

**SANIKOLAS.EUS**  
Areneazpi Kalea, 15 (48991)  
Getxo, Bizkaia



Gehitu Kirola ekimena duela 15 urte hasi zen martxan.

galdetegiaren datuek agerian utzi dutenez. Arduradunek azaldu dute ikerketa egiteko galdetegia 75 elkarteri –udalerriko guztiebidali zitzaie, eta horietatik % 35ek erantzun duela.

Sinatutako hitzarmenetan aipatutako konpromisoak hartzeaz gainera, Gehitu Kirola egitasmoaren bitartez, Udalak kirol elkarteei euren jarduna euskaraz egitera laguntzeko itzulpen-, aurkezpen- eta interpretazio-zerbitzuak jartzen ditu eskura. Era berean, formakuntza, entrenatzaileentzako materiala eta diru-laguntzak eskaintzen dizkie. Bestalde, kirol elkarteek euskararen erabilera euren baitan sustatzeko izan ditzaketen edozein zalantza argitzeko, eta elkarteak egindako lanaren jarraipen iraunkorra bermatzeko asmoz, Bizarra Lepoan euskara elkarteak aholkularitza zerbitzua eskaintzen die, 667 540 241 telefono zenbakiaren bitartez edo gehitueuskara@getxo.eus emailaren bidez. «Elkarteko kideok prestutasun osoa izango dugu beharra duten elkarteakaz biltzeko zeregin horretan», iragarri dute Bizarra Lepoan elkarteko kideek. ◀




# Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:




AURREKO  
SOLUZIOAK




## Altxorraren bila

Bost itsaslapur hauek sekulako altxorra dute zain, baina bik besterik ez dute bidea aurkituko. Nortzuk?



## Engainagarriak

Txanpon eder hau alboko altxorretik atera da. Ondoko puskei erreparatu eta esan zeintzuk diren onak eta zeintzuk imitazio txar batekoak.



## Baietz hamabi!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearen ispilu direla ematen du, baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.

**KALITATEZKO HEZKUNTZA  
EUSKARAZ**

**BETIKO**  
IKASTOLA


[www.betikoikastola.eus](http://www.betikoikastola.eus)  
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa  
[info@betikoikastola.eus](mailto:info@betikoikastola.eus)  
94.464.23.64

### KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
  - Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVA...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.







## Bikotea

Loro hauen artetik bat bi aldiz ageri da. Zein da?

# Busti daigun Urduliz EUSKERAZ!

## ABENDUAK 2

18:30

### KALEJIRA MUSIKATUA

Herriko elkarteen abestiak

Mauratza plazatik

Elortza plazara

21:00

### ASAGO kontzertua

Elortza plazan

Euria egiten badu Txiberri frontoian

## ABENDUAK 3

12:00-14:30

Antsonekoa plazan

Elortza eskolako ikasleen

### EUSKARAREN ALDEKO

### ADIERAZPENA

Iratxo Gorria dantza taldea

Txalaparta tailerra

Egurrezko jolasak

Talo tailerra



Urdulizko zinegotziak  
Urdulizko berbalagunak

ABENDUAK 3 · EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# Euskaraz hitz egiten duzu?



**IRMA MIER ZARRAGA**  
ALGORTA

Dakitenekin bai. Duela bi urte Gasteiztik Algortara bueltatu nintzen, eta, hemen, espero nuena baino euskara gutxiago entzuten dut. Aukera gehiago nuen Gasteizen nire egunerokotasunean euskaraz aritzeko. Hemen ez da egiten erosoak garelako eta kontzientzia ezagatik.



**JOSEBA MOROTXO ARANGUREN**  
ALGORTA

Hain ondo moldatu ez arren, bezereen batek euskaraz egiten didanean ahalegintzen naiz. Hizkuntzaren alde egiten diren ekimen guztiak ere ondo daudela uste dut, oro har, Getxon oso euskara gutxi entzuten baita. Denetarik dago, baina azken ardura herritarrona da.



**UNAI SAN PEDRO**  
ALGORTA

Unibertsitateko lagunekin euskaraz egiten dut, denak Euskal Herriko beste leku batzuetakoak direlako. Etxekoekin batzuetan soilik egiten dut, zailtasun gehiago dutelako. Halere, esango nuke hemen ez dela euskara asko entzuten.



**NAHIA DEL MORAL**  
BERANGO

Nik egunero erabiltzen dut, nire umearen ama-hizkuntza euskara izatea nahiko nukeelako eta nire bikotea ere ikasten ari delako. Aldiz, lagunekin gustatuko litzaidakeena baino gutxiago egiten dut euskaraz, ohitura falta daukagulako-edo.

## Euskararen erabileran saltoa ematera goaz!

**ABENDUAK 3**

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

hiruka | 27  
2023ko abendua

Zozketa

## **Kortxoaren dilema antzezlan**

Abenduaren 22an, barikuan, Patxo Telleriaren obra mamitsu hau hartuko du Getxoko Muxikebarri Antzokiak. Saioa 19:30an hasiko da, eta sarrera bikoitzak ditugu zure zain!

Zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 17a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## **Ikaskoliko otzara, zure zain!**

Zuberoako ikastolei laguntzeko egitasmoa da Ikaskoli. Haien ekimenez, Ipar Euskal Herriko ekoizle txikien produktuez osaturiko otzara eder hau daukagu gure irakurleentzat!

Zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 17a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.




Zozketa

## **Nesken taldea liburua**

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 10 urtetik gorako umeentzako liburu polit hau dugu zozkagai. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 17a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



## **Zelan egin HIRUKAlagun?**



**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



# IBAIZABAL

HAUR ETA GAZTE LITERATURA



*Euskaraz irakurri, irakurriz bizi!*